



KLIMAREN ALDEKO AKORDIOA “BASQUE GREEN DEAL”

30 EKINTZA



eman botoa
vota

ej
pnv

EAJ-PNV.EUS



KLIMAREN ALDEKO AKORDIOA: “BASQUE GREEN DEAL”

Datorren hamarkadako klimaren eta ingurumenaren arteko trantsizioaren aurrean, Euskadik Klimaren aldeko Akordio handi batekin erantzun nahi du - “Basque Green” akordioa. Akordio honek hazkunde ekonomikoa eta ingurumenaren babesa bateratzen ditu, euskal gizarte ekitatibo eta oparoa bultzatuz, baliabideen erabileratik bereizitako ekonomia lehiakor batekin eta 2050ean neutraltasun klimatikoa lortzeko helburuarekin.

Funtsezko elementuetako bat herritarrek administrazio publikoarekin, gizarte zibilarekin eta sektore ekonomikoekin duten parte-hartzea eta lankidetzeta da. Erantzun politikoaren bidez, osasunerako, bizi-kaliterako, erresilientziarako eta lehiakortasunerako onurak maximizatzen saiatuko dira.

“Basque Green” ak **klimaren aldeko 30 ekintza** biltzen ditu ekonomia zirkularra bultzatzeko eta klima-aldaketa geldiarazteko, biodibertsitatearen galera iraultzeko eta kutsadura murrizteko. Ekonomiaren sektore guztiak hartzen ditu bere baitan, garraioa, industria, energia, eraikinak eta nekazaritza bereziki.

Itunaren helburu orokorra **“2050ean Euskadin neutraltasun klimatikoa lortzea”** da. Horretarako, hiru erronka espezifiko ezarri dira 2025. urterako:

- a) Berotegi-efektuko gasen isurketa %30 murriztea.
- b) Energia berriztagarriak azken energia-kontsumoaren %20 izan daitezen lortzea.
- c) Euskadi Europako lehen 4 herrialdeen artean kokatzea energia-eraginkortasunari dagokionez.

“Basque Green” Agenda Basque Country 2030en eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuen parte da, bai eta Europako Itun Berdean ezarritako lehentasunen parte ere.

EAJ-PNVk Klimaren aldeko Akordio hau gauzatzeko konpromisoa hartzen du, berau betetzeko beharrezkoak diren finantza-tresnak eta inbertsio jasagarrien plana definituz.

30 EKINTZA

“BASQUE GREEN DEAL”

I KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA

1. Euskadiko klima-aldaketari buruzko Legea
2. Trantsizio energetikoaren eta neutraltasun klimatikoaren aldeko itun soziala
3. Energiaren azken kontsumoan energia berriztagarriak %20ra arte igotzea
4. Klima-aldaketara egokitzeko udal eta eskualdeetako 50 plan
5. Karbono-aztarnaren erregistroa duten 100 erakunde
6. Klima-aldaketaren aurkako Europako ikerketa-proiektuetan parte hartzea

II ENERGIA GARBIA ETA SEGURUA

7. Eraikinetan autokontsumorako elektrizitatea sortzeko estrategia, teknologia garbien bidez (fotovoltaikoa, eolikoa eta biomasa)
8. Energia fotovoltaikoaren gehikuntza 100 MW-tan eta eolikoarena 200 MW-tan
9. Energia berriztagarriak erabiliz, District heating (barruti zentralizatuko hiri-berokuntza) proiektu pilotuak
10. Energia garbiak dituzten ibilgailuen erabilera hirukoiztea
11. Euskadiko trantsizio energetikoari buruzko Legea
12. Euskal administrazioen kontsumo elektrikoaren %100 jatorri berriztagarriarekin

III EKONOMIA ZIRKULARRA ETA INDUSTRIA JASANGARRIA

13. Ekonomia zirkularren estrategia garatzea euskal enpresetan
14. Industria-hondakin gutxiago sortzen dituzten ekoizpen-ereduetarako trantsizioa
15. Plastikozko ontzien % 75 birziklagarriak izatea lortzea
16. EAEko eskualdeen %50 ekonomia zirkularreko ekintza-planekin
17. Hondakinen birziklapena %60ra arte handitzea
18. Ekoberrikuntzako eta ekonomia zirkularreko 250 enpresa-proiektu

30 EKINTZA

“BASQUE GREEN DEAL”

IV	MUGIKORTASUNA ETA GARRAIO JASANGARRIA ETA ADIMENDUNA
19.	Tren bidezko garraioa, Euskadiko mugikortasun jasangariaren erreferente nagusia
20.	Euskadiko eskualdeen %100 Mugikortasun Iraunkorrekiko Planarekin
21.	Parke publikoko ibilgailuen %100 ordezkotako erregaiekin
22.	30.000 biztanletik gorako udalerriak isuri txikiko zonaldekin

V	NEKAZARITZA JASANGARRIA ETA BASO-BIOEKONOMIA
23.	Euskadin kontsumitutako elikagaien %50 Euskadin ekoiztuta
24.	Elikagaiak alferrik galtzea %30 murriztea
25.	Euskadiko Baso Bioekonomia Zirkularraren Aliantza sortzea

VI	KLIMAREN ETA BIODIBERTSITATEAREN ALDEKO EKINTZA
26.	Zuhaitz-azalera 10.000 hektareatan handitzea
27.	Gure ibaietako uraren %70 kalitate onekoa edo onargarria
28.	Kutsatutako lurzoruen 400 hektarea gutxienez berreskuratzea
29.	Bonu berde eta jasangariak jaulkitzeko programa
30.	Zerga-politika berdea garatzea, Europar Batasunarekin lerrotatuta